

Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 19tan, Udalbatzarra bildu da, Idazkari-kontuhartzailea bertan egonik.

Alkate Lehendakari jaunak zuzendu du bilera eta bertara ondoko Udalkideak agertu dira:

LEHENDAKARIA: Nekane Arrizabalaga

ZINEGOTZIAK :

Arkaitz Iruretagoiena Lertxundi	Iñigo Etxabe Azkue
Miriam Sarasola Eizmendi	Estibaliz Lizarreta Merino
Aharaa Zuloaga Mintegui	Aitor Arregi Eizagirre
Hodeiza Sallen Molinero , eta	Irati Eizagirre Aguirre

Idazkari-Kontuhartzailea: Xabier Osa

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azalduko gertatu eta erabaki da:

1.- Aktaren onarpena

2020ko uztailaren 15ean, eginiko udalbatzarren akta , ontzat eman da aho batez.

2.- Oinarrizko lanbide heziketako zentroa dela eta Eusko Jaurlaritzarek eskumen delegazioaren indarraldia luzatzea.

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak, 2020ko uztailaren 20an, onartu zuen udal honi 2016an eskuordetutako ,Oinarrizko Lanbide Heziketako prestakuntza zikloak emateko eskumena luzatzea 2020-2021 ekitaldietarako.

Idazkariak adierazi du , erabakiak gehiengo osoaren aldeko botoa behar duela.

Eta bestalde , Euskadiko Toki erakundeen Lege berriak, 20. atalean, eta 7/1985 Legeak, 47.2.h atalean, biak, aurreikusten dutela eskuduntzen delegazioa .

Hori guztia kontuan hartuta eta 7/1985 Legeak, 47.2 atalean eskatzen duen gehiengo osoaren aldeko botoekin, aldeko 9 boturekin, beraz aho batez , hartu da ondoko

AKORDIOA:

“ Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak, 2020ko uztailaren 28an, Oinarrizko Lanbide Heziketako prestakuntza zikloak emateko, onartu zuen **eskumen delegazioaren indarraldia luzatzea 2020-2021 ekitaldietarako.**”

Bilera, 19,20ean bukatu da , eta bertan esan eta onartutakoak jasota gera daitezzen, Idazkariak hau ematen dut,

Aian 2020ko urriaren 15ean.

IDAZKARI -KONTUHARTZAILEAK